



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Bota sarea txaluparen eskuinera eta aurkituko duzue”

2022ko maiatzaren 1a
Pazkoaldiko 3. Igandea (C)

Joan 21, 1-19.

Geroxeago, berriro agertu zitzaion Jesus bere ikasleei Tiberiades aintzira-ertzean. Honela gertatu zen agerpena: Elkarrekin zeuden Simon Pedro, Tomas --Bikia zeritzana--, Natanael --Galileako Kanakoa--, Zebedeoren semeak eta beste bi ikasle. Hortan, Simon Pedrok esan zien: -Arrantzura noa. Besteek erantzun zioten: -Zurekin goaz gu ere. Irten eta untziratu egin ziren. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu. Eguna argitu zuenean, aintzira-ertzean agertu zen Jesus; baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela. Jesusek esan zien: -Mutilok, baduzue jatekorik? Haiek erantzun: -Ez. Jesusek esan zien: -Bota sarea txaluparen eskuinera eta aurkituko duzue. Hala egin zuten. Eta hainbeste arrain harrapatu zuten, ez ziren sarea ateratzeko gauza. Orduan, Jesusek maite zuen ikasle hark esan zion Pedrori: “Jauna da”. Simon Pedrok, Jauna zela entzun bezain laster, soinekoa jantzi (erantzia baitzuen) eta salto egin zuen uretara. Gainerako ikasleak txalupaz joan ziren, sarea arrainekin tiraka zekartela, lehorretik hurbil baitziren, ehunen bat metrora. Lehorreratzean, su-txingarrak ikusi zituzten, gainean arrain bat zela, eta ogia. Jesusek esan zien: “Ekarri harrapatu berri dituzuen arrainetariko batzuk”. Igo zen untzira Simon Pedro eta lehorretera atera zuen sarea, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz betea. Eta, hainbeste izanik ere, ez zen sarea apurtu. Jesusek esan zien: “Etorri gosaltzera. Ikasleetako inor ez zen ausartzen nor zen galdetzera, ongi baitzekiten Jauna zena. Orduan, Jesusek, hurbildurik, ogia hartu eta eman egin zien, bai eta arraina ere. Hirugarren aldia zen hau, Jesus, hilen artetik piztu ondoren, bere ikasleei agertzen zitzaiona.

“Galileako itxas ertzean Jesusek bere apostoluei egindako agertaldi berezia entzungo dogu gaurko ebanjelioan”

EGUNSENTIAN

Jose Antonio Pagola

Joanen ebanjelioaren epilogoak, Jesus berpiztuak eta ikasleek, Galileako aintziraren ertzean, egin duten topo egite bat dakar. Kontakizun hori idatzi denean, kristauak momentu gogorak ari dira bizitzen: probaldia eta pertsekuzioa; batzuek uko egin diote fedeari. Kontalariak irakurleen fedea biziberritu nahi du.

Hurbil da iluna eta ikasleak arrantzura irten dira. Ez daude Hamabiak. Taldea hautsi egin da haien Maisua gurutzeari josi dutenean. Jesusi jarraitzeko alde batera utziak zituzten beren ontzi eta sareetara itzuli dira. Bukatu da dena. Bakarrik daude berriro.

Arrantzua erabateko porrota izan da. Kontalariak indartsu azpimarratu du: «*Irten ziren, ontziratu ziren eta gau hartan ez zuten ezertxo ere harrapatu*». Sareak hutsik itzuli dira. Ez ote da hau bera kristau-elkarte ez gutxiren esperientzia, beren indar eta ahalmen ebanjelizatzaileak ahuldurik ikustean?

Sarritan, gizarte axolagabearen barnean doi-doi izaten du emaitzarik gure ahaleginak. Geuk ere sareak hutsik direla egiaztatzen dugu. Aise sor daiteke adore-faltaren eta etsipenaren tentazioa. Nola eutsi geure fedeari eta biziberritu hura?

Porrotaren testuinguru honetan, kontakizunak dio «*eguna argitzen ari zela, Jesus aintzira-ertzean agertu zenean*». Alabaina, ikasleek ez diote antzeman ontzitik. Agian distantziagatik, agian egunsentiko lainoagatik eta, seguruena, bihotzeko tristurak ikustea galarazten dielako. Jesus hizketan ari zaie, baina «*ez zekiten Jesus zela*».

Ez ote hau bera jasaten ari garen krisi erlijiosoaren ondorio kaltegarrienetako bat? Nola biziraungo kezkatuak, geure ahuldadea gero eta argiago egiaztaturik, ez zaigu gauza batere erraza gertatzen Jesus berpiztuaren presentzia geure baitan hautematea, Ebanjeliotik mintzo zaigunean eta eukaristi afariaz elikatzen gaituenean.

Jesusek maite duen ikasle hura izan da lehenik antzeman diona: «*Jauna da!*» Ez daude bakarrik. Dena has daiteke berriro. Dena izan daiteke desberdin. Apaltasunez baina fedez, Pedrok aitortuko du bere bekatua eta agertuko dio Jesusi bere zinezko maitasuna: «*Jauna, zuk badakizu maite zaitudala*». Gainerako ikasleek ezin sentitu dute horixe besterik.

Geure kristau-talde eta elkarteetan Jesusen lekukoren beharra dugu. Geure porrotaren eta ahuldadearen esperientziaren erdian, beren bizieraz eta hitzez Jesusen presentzia bizia aurkitzen lagunduko diguten fededunen beharra dugu. Jesusekiko geure konfiantza hazirik irtengo gara kristauok krisialdi honetatik. Gaur ez gara gai barruntatzeko konfiantza horrek zer-nolako indarra duen, adore-falta eta etsipen horretatik irteten laguntzeko.